

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2382

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 16koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdia hutsik geratu dela adierazteko dena. Aipatutako deialdia 2009ko urriaren 28ko Ebazpenaren bidez egin zen (2009ko azaroaren 26ko EHAA).

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Zuzendariak egindako txosteka ikusita eta lehen aipaturiko ebazpenaren laugarren oinarria betetzeko, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorriz (1989ko uztailaren 28ko EHAA), Gerentzia honek, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen 2009ko urtarrilaren 26ko Ebazpenaz eskuordetu zaizkion ahalmenez baliatuz (2009ko otsailaren 24eko EHAAn argitaratutako Erabakia, Unibertsitateko Errektoregoaren egitura eta funtzionamendu arloak zehaztu eta eginkizunak eskuordetzen dituen), honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean zehazten den lanpostuaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, baina haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzenean Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegi egokian, bi hilabeteko epean, Ebazpen hau Errektoregoko iragarki-oholean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori guztia bat dator Unibertsitateko Estatutueta 220. artikuluan, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 116. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazio Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoarekin.

Leioa, 2010eko apirilaren 16a.

Gerentea,
XABIER AIZPURUA TELLERIA.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

2382

RESOLUCIÓN de 16 de abril de 2010, del Gerente de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se declara desierta la convocatoria de un puesto de trabajo convocado a libre designación por Resolución de 28 de octubre de 2009 (BOPV de 26 de noviembre de 2009).

Visto el informe de la Directora de la Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao y en cumplimiento de la base cuarta de la misma; y de conformidad con la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV de 28 de julio de 1989), esta Gerencia, en uso de las competencias delegadas por Resolución de 26 de enero de 2009, del Rector de la UPV/EHU, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento del Rectorado de la Universidad y de delegación de competencias (BOPV de 24 de febrero de 2009),

RESUELVE:

Primero.– Declarar concluido el procedimiento y desierta la convocatoria del puesto de trabajo que se detalla en el anexo de la presente Resolución.

Segundo.– La presente Resolución agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Gerencia en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de los de Bilbao en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la fecha de su publicación en el tablón de anuncios del Rectorado, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 220 de los Estatutos de la Universidad, artículo 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero y artículos 8 y 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Leioa, a 16 de abril de 2010.

El Gerente,
XABIER AIZPURUA TELLERIA.

I. ERANSKINA

- Izena: Administrazio-burua
- Erref.: F 1165
- Eskala: Gestio-Teknikariarena
- Taldea: A
- Zenbatgarrena: 6
- Maila: 26
- Hizkuntz eskakizuna: 3.a; derrigortasun-data: 2009-09-30
- Langunea: Bilboko Irakasleen UE
- Campusa: Bizkaia

ANEXO I

- Denominación: Jefe de Administración
- Ref.: F 1165
- Escala: Técnica de Gestión
- Grupo: A
- Dotación: 6
- Nivel: 26
- Perfil lingüístico: 3; fecha de preceptividad: 30-09-2009
- Centro: E.U. de Magisterio de Bilbao
- Campus: Bizkaia